

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****2018ko ekitaldiko lan-eskaintza publiko aldatzea**

Alkateak 4445/2018 Dekretua onetsi du, 2018ko abenduaren 17an. Honelaxe dio bertako testuak:

2018rako lan-eskaintza publikoa onetsi zuten 1720/2018 Alkatetza Dekretu bitartez, Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak finkatutako irizpideei jarraituta. Gero, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legea argitaratu zen, 2018ko uztailaren 4ko EAO. Bada, Lege horretako 19. artikulua, «lan-eskaintza publikoa edota langile-beharrizanei aurre egiteko horren pareko kudeaketa-tresnak» izenekoak, 1720/2018 Alkatetza Dekretukoak baino birjartze-tasa handiagoak aurreikusi ditu. Horrez gain, aldi baterako lana egonkortzeko tasa osagarria jaso du 6/2018 Legeak, zeinak barne hartuko baititu aurrekontu-zuzkidura izan duten, eta 2017ko abenduaren 31a baino lehen, gutxienez, etenik gabe beteta egon diren egiturazko plazak, honako sektore eta langile-talde hauetan: administrazioa eta zerbitzu orokorrak, ikerkuntza, osasun publikoa eta ikuskatzailatza medikoa eta bestelako zerbitzu publikoak.

Horrela, bada, ikusita Giza Baliabideen atalburuak 2018ko abenduaren 5ean egin-dako txostena, eta Langile Batzordearekin negoziatu eta gero, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan jasotako eskumenak baliatuta zera xedatzen du Alkatetza honek:

*Lehenengoa:* Maiatzaren 14ko 1720/2018 Alkatetza Dekretua aldatzea, Dekretu honen eranskinean jasotako baldintzak beteta.

*Bigarrena:* Xedapen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Basaurin, 2018ko abenduaren 17an. — Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta

**ERANSKINA****2018KO EKITALDIARI DAGOKION LAN-ESKANTZA PUBLIKOA. ALDATUTA****SARBIDE LIBREKO SISTEMA**

2018ko Estatuko Aurrekontuei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.1.6 artikulua ekitaldirako finkatutako birjartze-tasaren arabera kalkulaturako plaza kopurua:

Taldea (7/07 Legearen artikulua arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: udaltzaina	UDALTZAINA	1	2
C2	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	OFIZIAL ITURGINA	2	1
E	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	EPMLA	2	2
E	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	PEOIA	3	1

2018ko Estatuko Aurrekontuei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.1.9 artikulua ekitaldirako finkatutako birjartze-tasaren arabera kalkulaturako plaza kopurua:

Taldea (7/07 Legearen artikulua arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C1	Adm. Orokorreko Eskala Administrariaren Azpieskala Klasea: administraria	TEKNIKARI ADMINISTRARIA	3	2
E	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: lanbideetako langileak	EPMLA	3	2

2018ko Estatuko Aurrekontuei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.1.9 artikulua ekitaldirako finkatutako birjartze-tasaren arabera kalkulaturako plaza kopurua,

**DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO TXANDAN**

Taldea (7/07 Legearen artikulua arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
C1	Adm. Orokorreko Eskala Administrariaren Azpieskala Klasea: administraria	TEKNIKARI ADMINISTRARIA	1	2

**BARNE-SUSTAPENEN TXANDA**

Taldea (7/07 Legearen artikulua arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kop.	HE
A (A1)	Adm. Bereziko Eskala Azpieskala Teknikoa Klasea: goi-mailako teknikaria	IT-EN ETA HAZ-EN ATALEKO ALBOKO TEKNIKARIA	1	3
C (C1)	Adm. Bereziko Eskala Zerbitzu Berezien Azpieskala Klasea: udaltzaina	LEHEN MAILAKO UDALTZAINA	1	2

Deialdi bakoitzean zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedura eta baldintzak.